

DEKANOA

- FAKULTATEA: EZAGUTZA ETA GIZARTEA -

Kaleko norbaiti galdetuz gero zer egiten ote den Fakultate honetan, "eskolak ematen dira" eta "ikerikuntza egiten da" erantzungo du. Baina, horren ondoren, galde daiteke "zertarako" egiten den hori. Bada, UPV/EHU bezalako unibertsitate publiko baten mende dagoen gure ikastegi honi dagokionez, hona hemen erantzuna: gizariteari ezagutza helarazteko ikertzen eta irakasten da.

Fakultatean, ezagutza ikerkuntzaren bitartez sortzen da, eta gizariteari helarazten zaio hainbat bidetatik: ikasketen bidez; enprekin, erakunde publikoekin eta beste gizarite eragile batzuekin elkarlanean egiten diren txostenen eta/edo ikerketen bidez; argitaratutako artikuluen eta liburuen bidez; eta hitzaldien eta bestelako bitarteko batzuen bidez, esate baterako.

Alabaina, ezagutza transmititzeko modurik garrantzitsuenak irakaskuntza da. Izan ere, graduako eta gradu ondoko prestakuntzarekin, gure ikasleek ezagutza bereganatzen dute, eta lan egingo duten erakundeetako beste pertsona batzuei helaraziko diete gerora.

Fakultateko ez dugu aitortzen bereziki jaso nahi, gure lana dela eta; gure ahalegina oro har aitortzea nahi dugu, ez besterik. Hala eta guztiz ere, izugarri pozten gara eta guztiz eskertzen dugu erakunderen batek bereziki aitortzen duenean ahalegin hori. Horixe gertatu zen apirilaren 19an, Donostian: Gipuzkoako Merkatarien Federazioak intsignia eman zigun, Finantza Ekonomia II Sailak egiten duen jardun goraipagarriaren aitortpen gisa. Hain zuzen, ikasleak merkatu enpresen kudeaketako graduondokoaan trebatzen dituzte, Eusko Jaurilaritzarekin lankidetzan. Horrenbestez, esker ona eman nahi diogu Gipuzkoako Merkatarien Federazioari, gure lana ondo egin dugula jakinarazteagatik.

Buletin honetako beste albiste batzuk ere aurreko horiei buruzkoak dira. Prestakuntzan, graduatuen lehendabiziko promozioaren inbestidura; doktore berrien inbestidura (gainera, gure ikastegian doktorego tesi asko defendatu dira); ikerkuntzan, Ikerkuntza Jardunaldiak (lehendabizikoz egin dira Fakultatean, eta hemengo ikerkuntza aparaoan eta onean sakontzea ahalbidetu dute) eta Ekonometria eragilearen interesgarria, Ekonomisten Euskal Elkargoak garatua (gure irakasleek ere asko lagundu dute).

Azkenik, guztiok genero berdintasunean inplikatzeko gaituen lan garrantzitsua. Fakultateko Berdintasun Batzordeak lehenengo urtea bete du, eta Pilar González eta Jasone Astola irakasleek lan horren ildoan sakontu dute, Fakultatean Emakumearen Eguna ospatuz, UPV/EHU lehenengo aldiz.

Arturo Rodríguez

Lehenengo graduatuak izendatzeko ekitaldia

Urtarrilaren 21ean, Leioako Areto Nagusian, 2013/2014 ikasturtean graduatutako diplomak banatzeko inbestidura ekitaldia egin zen. Zehazki, gradu hauetako lehenengo promozioak graduatu ziren: Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Finantzak eta Aseguruak, Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa, eta Merkataritza. Halaber, diplomak eman zitzaizkien honako promozio hauetako lizentziadunei, guztira 200dik gora: Ekonomia 55. promozioa, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako 55. promozioa, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako 17. promozioa eta Merkatu Ikerketa eta Tekniketako 11. promozioa. Diploma horiez guztiez gain, graduako bost sari berezi eta lizentziaturako zortzi banatu ziren, eta aipamen berezia egin zitzaion espediente akademikorik onenari.

Iñaki Goirizelaia UPV/EHUko errektoreak zuzendu zuen ekitaldia, eta mahaikide izan zituen Arturo Rodríguez, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa; Miren Begoña Urrutia, Eusko Jaurilaritzako Zientzia Politikako zuzendaria; Iñigo Ocariz, Ekonomialarien Euskal Elkargoko



presidentea; eta Alberto Abadie, promozioaren aitabitxia eta Harvardeko Unibertsitateko Harvard Kennedy Schooleko Herri Politiketako irakaslea.

Abadie adore eman zien graduatuei, aktiboki parte har dezaten XXI. mendeko arazo nagusiztat duenari aurre egiten: hots, baliabideen banaketari eta, zehazki, aberastasuna partekatuzko moduari. Era berean, ekonomialari eta munduko herritar gisa pentsatzeko eskatu zien, mende honetako giza abenturarik handientzat jotzen duen horretan aldaketa eragin dezaten, munduko erronka handiak konpontzeko. Ildo horretatik, eskatu zuen bakoitzak dagokion postutik (enpresa pribatu,

herri administrazioak, alderdi politikoak eta gizarite eragileak, akademia eta GKEak, adibidez) lagun dezala gizarite zuzenago, eraginkorrago eta solidario bat lortzen.

Bestalde, Espediente Onenaren Sari Berezia Alvaro Salazar Pérezi eman zioten: UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Graduako ziklo osoko espediente onena eta Lehenengo Saria lortu ditu. Alvarok ikasleak animatu zituen beren ametsa eta etorkizuna betetzen saiatzera, prestakuntza ona oinarri hartuta. Era berean, eskertu egin zuen Fakultateko irakasleek eta ikasleek lan horretan laguntzeko egin duten ahalegina.

Doktoreak izendatzeko ekitaldia

Apirilaren 24an, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak omenaldia egin zien 2014an tesia irakurri zuten doktoreei. 2014an, guztira 479 doktorego tesi defendatu ziren; horietatik 106 Gizarite eta Lege Zientzien arlokoak dira, eta 27 gure Fakultatean defendatu ziren.

Iñaki Goirizelaia UPV/EHUko errektoreak zuzendu zuen ekitaldia. Bertan, Brian L. Bayne irakaslea Honoris Causa doktore izendatu zuten; Britainia Handiko ikertzaile gorenak da, eta haren lanak oihartzun handia izan du nazioartean 40 urtez baino gehiagoz, itsasoko

organismoen fisiologiaren eta ekologiaren alorrean. Bayne irakasleak ekarpen garrantzitsua egin dio gure unibertsitateari hainbat ikerlerrotan. Berezi nabarmentzeko

da Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saileko ikertaldearekin izan duen harremana; "Itsas bibalbioen fisiologia energetikoa" ikertu dute, hain justu.



Enpresari Aplikaturiko Ekonomiaren Institutuaren 50. urteurrena



Maiatzaren 8an (ostirala), Enpresari Aplikaturiko Ekonomiaren Institutuak sortu zeneko 50. urteurrena ospatu zuen. 1964an sortu zen, gure Fakultatearen ekimenez, Bilboko Industria Ingeniarren Goi Eskola Teknikoarekin lankidetzan. Hasiera batean, Valladolideko Unibertsitateari atxiki zitzaion; ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateari, sortu zenean.

UPV/EHUn bi institutu zaharrene-tako bat da, eta guztira lau sailetako UPV/EHUko 47 irakasle eta ikertzaile biltzen ditu. Unibertsitate graduondokoen eta ikerketa aplikatuen eskaintza zabala du.

Ospakizun ekitaldiak 200 pertsona

baino gehiago bildu zituen, eta, Jon Landeta zuzendariak institutuaren jatorria eta bilakabidea azaldu ondoren, Bankiako presidente José Ignacio Goirigolzarrik emandako hitzaldia entzun zuten.

Bere saioan, Goirigolzarrik nabarmendu zuen zer-nolako garrantzia duen "hezkuntzak Espainiako gizartearen eta ekonomiaren orainaldian eta geroaldian. "Haren ustez, "beharrezkoa da hezkuntzako plan nazional handi bat egitea, herritarrei enplegua bermatzeko; hori da Espainiaren lakra handiaren aurkako borrokan aritzeko bide nagusietako bat. Izan ere, onartezina da langa-

beziaren maila, batez ere gazteen artean".

Bankiako presidentek, era berean, esan zuen Espainiako ekonomiaren beste erronka handi bat zela "enpresa nazionalen lehiakortasuna hobetzea eta, beraz, haien lehiakortasuna areagotzea. "Hori lortzeko, "berritzaileago izan behar dute, ekoizpena areagotu behar dute eta handitu egin behar dira. Administrazioak horri lagun diezaiok, merkatuak liberalizatuz, fusioen aldeko zerga politika aplikatuz eta merkatuaren fragmentazioak hautsiz" adierazi zuten.

Finantzen sektoreari buruz, zehazki, Goirigolzarrik hau azaldu zuen: "nabarmen hobetu da azken urteotan, eta kaudimena ere lortu du, baina ahalegin handia egin behar du interes tipoak ia hutsean dauden honetan. Erakundeek hobetu egin behar dituzte errentagarritasuna eta efizientzia, ekoizpena areagotuz eta berrikuntza dosi handiak erabiliz. Horiek dira Bankiaren erronka nagusiak" esan zuen Goirigolzarrik amaieran.

UPV/EHUko errektore Iñaki Goirizelaia itxi zuen ekitaldia.

*Jon Landeta
EAEI-ko zuzendaria*

Ekonometroa aurkeztu dute

Otsailaren 19an, Ekonomialarien Euskal Elkargoak Ekonometroa aurkeztu zuen: fiantzaren adierazle sozioekonomikoa da, egoera jakin batean eginiko inkesta baten bidez bere elkargokideen iritzia eta ikuspegia biltzen dituen, egungo egoeran. Halaber, enpresaren eta oro har ekonomiaren ikuspegiak jasotzen ditu etorkizunari eta eguneroko gaiei dagokienez.

Ekonometroak bi ataleko egitura du. Atal bat finkoa da, eta bestea aldatkorra; zehazki, edukiak inkesta egiten denean egunerokotasuna duten ekonomia gaien arabera aldatuko dira. Atal finkoan, ekonomialariei eskatu zaie eman dezate la egungo egoera ekonomikoaz eta datozen hilabeteetarako aurreikuspenez duten iritzia (hala

egoera pertsonalari nola autonomia erkidegoko egoerari dagokiona), bai eta euskal ekonomiaren lehiakortasunean gehien eragiten duten faktoreen inguruko ere.

Bestalde, lehenengo aldi honetan, atal aldakorrak honako gai

havei heldu die, besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Sistemaren egitura eta euskal ekonomia-aren aurreikuspenak, Euskal Herriak Espainia izateari utziko balio.

Inkesta 2014ko abenduan egin zen lehenengoz. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako 898 ekonomialarik parte hartu dute 5.115 ekonomialari elkargokideren artean egindako inkestan; hots, kolektiboaren % 17,6k.

Emaitzak lurraldearen, sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera bereizten dira. Agiri osoa honako helbide honetan aurki dezakezue: <http://www.ekonomista.org/portal/menu-nicio.asp?idopcion=2477>



EAZko eta Zuzenbideko gradu bikoitzeko ikasleak saritu dituzte

Euskal Herriko Unibertsitateak ematen duen Europako gaitako lkerkuntza Sariaren epaimahaia eta BBK-ko Gizarte Ekintzak 2015eko deialdiko lehenengo saria eman diete Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea gradu bikoitzeko hiru ikasleri.

Maidar Castellano, Oier Onaindia eta Naiara Rodrigue Europar Batasuneko Zuzenbidea irakasgaiko ikasleek jaso dute saria, "Berdintasuna Europar Batasunean" lanagatik. Epaimahaia, lan irabazlearen kalitateaz gain, lanaren originaltasuna eta egileen mezu humanista nabarmendu zituen.

Halaber, azken fasera iritsi zen "Europar Parlamentuaren hauteskunderen bilakaera (1979-2014)" lana ere; gradu eta irakasgai bereko Oihane Apellaniz, Lorena Puga eta Itxaso Urrutikoetxea ikasleek egin dute.

Ha-Joon Chang-en hitzaldia

Apirilaren 27an, Fakultateko Areto Nagusian, Cambridgeko Unibertsitateko Ha-Joon Chang ekonomia irakasleak "Bringing Production back into Development" hitzaldia eman zuen.

Irakasleak azalpenak eman zituen ekoizpenaren gaia serio hartzen duen garapenaren diskurtsoa berreraikitzeaz. Azken hamarkadetan ikusi dugu garapen ekonomikoari buruzko eztabaidaren erdigunea aldatu egin dela ekoizpenetik (egitura eta ekoizpen ahalmena eraldatzea) pobrezia murrizketara. Hala, ekoizpena ia desagertu egin da garapenari buruzko diskurtsoan.

Hitzaldian, bestalde, Ryszard Kapuscinski kazetari eta idazle poloniarra omendu zen: 2007an hil zen, eta sarri "Hirugarren Munduaren kronista" edo "pobreen ahotsa" deitu zitzaion, munduko hainbat herrialdeetako errealtatei buruz egin zituen erreportaje eta liburu famatuak direla eta.



Fakultatea martxoaren 8a era akademikoan ospatzen hasi da



Fakultateko Berdintasun Batzordeak, 2014ko apirilaren 9an eratu zenak, hasi du aurten martxoaren 8aren, gizalaben nazioarteko egunaren, ospakizun akademikoa, gizalaben eta gizasemeen benetako berdintasunarekin gure Fakultateak duen konpromisoa islatzeko. Batzordeak erabaki du hastea ezagunak eta ez hain ezagunak diren gizalaba askoren lana begi bistan jartzen, Fakultatearen atarian martxoaren 2tik 9ra arte jarri zen erakusketa baten bidez, "Ezagutzen dituzu? Historia aldatu zuten" titulupean. Erakusketa horren oinarria Michelle Meulemans-ek egindakoa Mujeres luchadoras que cambiaron y cambiarán el mundo titulupean izan bazen, beste batzuk ere sartu zi-

ren, horren adibide dira, alor akademikoari lotutako Elinor Ostrom, Awan jaioa, (1933-2012), Ekonomian Nobel sariduna izan den gizalaba bakarra, 2009an, eta baita ere gure lurraldeari lotutako Francisca de Aculodi, Europan ezagutzen de lehenengo kazetaria, Donostian 1687tik 1689ra Noticias principales y verdaderas argitaratu zuena.

Gure ikasketekin zerikusia duten beste bi gai ere jorratu ziren: genero-berdintasunaren neurketa eta ekofeminismoaren oinarri teorikoak.

Lehenengo gaia genero-arraila argi uzten duten datu batzuen erakusketa-aren bidez garatu zen: 2014an Europan unibertsitate-ikasketekin zeuden

gizalaben ehunekoaren kopurua 8,5 puntu altuago zen gizasemeekin erkatuta, baina gizalaben enplegutasa 12 puntu baxuagoa zen, eta euren irabaziak 16,5 puntu baxuagoak, erkaketa horretan. Hori adierazteko The Gender Equality Index (European Institute for Gender Equality, 2010) erabili zen, Europako estatuetako genero-berdintasuna neurtzeko erabiltzen den indize konposatua, hainbat alor barneratzen dituelako: boterea, denbora, dirua, enplegua, hezkuntza eta osasuna.

Ekofeminismoaren oinarri teorikoak Yago Herrero Lopez-en hitzaldi birtual baten bidez jorratu zen, adierazteko zer estaltzen duten egungo ekonomia-paradigmek eta estaltze horren ondorioak. Hizlariak adierazten du, adibidez, balioa preziora mugatzen denean, alde batetik fotosintesia, polinizazioa, seme-alaben haztea, uraren zikloa..... ez direla ikusten, baina hori ez da gertatzen den gauza bakarra, oraindik okerrago dena ere gertatzen da, zentzugabekerieta jaustea: ez dago dirurik/preziorik ozono-geruzako zuloa itxiko duenik.

Jasone Astola
M^o Pilar González

Fakultateko zenbait ikasle, Deloitte Business Gameren bosgarren edizioko finalista



Apirilaren 16an, 17an eta 18an Deloitte Business Gameren bosgarren edizioaren finala jokatu zen Madrilen, eta hamasei unibertsitateko 48 ikasle parte hartu zuten. Deloitte antolatzen du jokoak, eta enpresaren eta unibertsitatearen mundua hurbilaztea da xedea; ikuspegi bereziki praktikoa du oinarri, eta taldeko bizikidetzeta eta lana sustatzen ditu erabakiak hartzeko prozesuan.

Fakultateko bi taldek parte hartu zuten, eta biak ala biak iritsi ziren finalera. Zerga Sistema eta Administrazio

Publikoko Graduak honako ikasle hauek osatu zuten Fiskalitate Taldea: UPV/EHUko Borja Lozanok eta Ibai Apraizek, eta Deustuko Alvaro Gardeazabalek. Finantzen Taldea, berriz, hauek osatu zuten: Finantza eta Aseguruetako Graduak ikasle Ander Gutierrezek eta Barbara Ceballok, eta EAZko ikasle Pedro Ganzarainek. Esperientzia guztiz aberasgarria izan da, Borjaren esanetan: "Nik ondorio hauxe ateratu dut: egiaz, ez dago ez ahalegintzeko arrazoirik. Beraz, UPV/EHUko ikasle guztiak animatu nahi dut horrelako esperientzietan

parte hartzera. Gaur egun, ohikoa da zure inguruko jendeak hizkuntzak jakitea, unibertsitateko ikasketak (eta, agian, master bat) izatea... Horrez gain, ordea, trebatzeko, lan egiteko eta halako proiektuetan parte hartzeko gogoak eman diezazuke enpresa baterako sarbidea. Aukera paregabea da benetan taldean lan egiten ikasteko, ekonomiaren beste alor batzuetan edota beste zientzia batzuetan espezializaturiko jendearekin. Aholkularitzaren esparrura gerturatzen zaitu enpresa aitzindari baten eskutik: ikaragarritzko luxua da".

Fakultateak Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren intsignia jaso du

Finantza Ekonomia II Sailak Gipuzkoako Merkataritza Federazioaren urrezko eta brillanteko intsignia jaso du, Merkataritza Banaketako Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketako prestakuntza ikastaroa antolatzen eta kudeatzen 25 urteko ibilbidea egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Garapena eta Lehiakortasuna Sailarekin lankidetzan. Ikastaroak profesionalen 25 promozio sortzea ahalbidetu du. Profesional horietako askok merkataritzaren inguruan dihardu oraindik ere.

Intsignia Gipuzkoako Merkatarien Federazioaren Batzar Nagusian banatu zen, apirilaren 19an (igandea), Donostiako Miramar jauregian. Deusto Business Schoolek ere intsignia jaso zuen, eta omenaldia egin zitzaion hiriko berrogeita hamar urteko zortzi saltokiri eta zazpi ekintzaileri. Arturo Rodríguez Castellanos UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanok hartu zuen saria.



Ikerketa jardunaldiak

2015eko urtarrilaren 21ean eta 22an, gure Fakultateko Ikerketa Jardunaldiak egin ziren. Sail guztien artean antolatu ziren, eta dekanato taldeak ere lagundu zuten. Izen handiko ekonomialari batek eman zion hasiera ekitaldiari: Rafael Doménechek, Valentziako Unibertsitateko katedradunak eta BBVA-Researcheko ekonomia garrantzen arloko ekonomialari nagusiak. Bada, "La situación y perspectivas de la economía mundial y de España" hitzaldia aurkeztu zuen, bere ikuspegia emanez. Horren ondoren, sail bakoitzak aukera izan zuen bere ikerkuntzaren gai nagusiak azaltzeko, eta, adibide gisa, hitzaldi bat edo bi emateko. Horrela, lehenengo egunean, R. Doménechen saioaz gain, honako hauek ere entzun ahal izan genituen: EBko arrantza politikari buruzko hitzaldia, Ikerne del Valle-rena (Ek. Aplikatua V); "Dirección de personas e innovación" hitzaldia, Jon Landetarena, eta "Ética en las finanzas y el valor social" hitzaldia, Leire San Josérena (biak Ek. Aplikatua II-koak); "El coste económico de las guerras" saioa, Ainhoa Vegarena (Ek. Analisiaren Oinarriak II); eta "Instituciones y políticas públicas para los nuevos

escenarios" saioa, Javier Bilbaorena (Ek. Aplikatua I).

Bigarren egunean, hasteko, Espainiako soldata errealean balioespen historikoei buruzko hitzaldia eman zuen Ernesto Lópezek (Historia Ek.). Gero, Arantza Beitiak (Ek. Analiaren Oinarriak I) "Problemas de selección adversa" hitzaldia eman zuen, eta, ondoren, Aitor Zurimendik (Enpresa Zuz.) "La reforma del sector de servicios profesionales en España" saioa aurkeztu zuen. Kafea hartzeko atsedendialdiaren ondoren, Marcela Espinosak eta Iñaki de la Peñak (Finantza Ek. I) "La respuesta de la profesión contable a las nuevas demandas sociales" hitzaldia eman zuten, eta ikuspegi berriei eta sektore aseguratzaileko irtenbideei buruz aritu ziren. Petr Marielek (Ek. Aplikatua III), berriz, "Aplicaciones de los modelos de elección discreta" saioa aurkeztu zuen, eta, amaitzeko, Federico Valencianok "Formación estratégica de redes" hitzaldia eman eta estrategien eraginkortasunaren eta iraunkortasunaren inguruko azterlan bat aurkeztu zuen. Amaitzeko, Voccalisse abesbatzak Gaudeamus Igitur abestu zuen, musika eki-

taldi labor bat egin ondoren.

Oraingo honetan, helburu nagusia sail bakoitzak egiten duen ikerketaren barneko ezagutza hobetzea izan da. Hala ere, horrek ez du esan nahi etorkizuneko helburua ere horixe izango denik. Entzuleak batez ere irakasleak izan ziren, eta, nahiz eta ez ziren guzti-guztiak bertaratu (gutxi gorabehera, ikertzaile eta irakasleen % 30), esperientzia oso ontzat jo zuten. Jarduera hau, ordea, etorkizuneko mantentzeko asmoz sortu da (hasteko, erreserbatua dugu datoren urterako eguna:

otsailaren 8a), baina ez du zertan formatu edo helburu bera izan. Ekitaldia sustatu genuen sailtako zuzendari gehienok ados gaude horrelako jardunaldiek, geure burua ezagutzen eta sailen arteko lankidetzaren laguntzeaz gain, erakusleho gisa balio dezaketela etorkizunean, gizarteari gure ikerkuntzaren emaitzak ezaugarazteko.

Ildo horretatik, azpimarratu behar da sail guztien eta dekanotzaren laguntza ekonomikoari esker egin dela jarduera; izan ere, hasieran ez zegoen sartuta Fakultatearen aurrekontuan. Horrek agerian uzten du sailen arteko lankidetzaren onuragarria izan daitekeela guztiontzat. Hala, etorkizunean lankidetzarako beste aukera batzuk aurkituko ditugu, ziur.

Ignacio Diaz-Empanza

